

## **Etxeitaren omenezko jardunaldian Euskaltzaindiaren izenean Adolfo Arejita iker sailburuak esandako hitzak**

Mundakan, 2015eko uztailaren 10ean

Uda minean ospatu dugu Jose Manuel Etxeita idazle mundakarraren gomutaz eta omenez jardunaldi hau. Ehun urte hil zela. Ez da aitzakia txarra, gure euskal narratibaren lantzaile goiztiarretariko baten lana plaza agerira atera eta gogoeta egiteko. Etxeitaren emaitza eta ondarea bere horretan neurtu eta baloratu, eta hartatik zerbait ikasteko etorkizunari buruz.

Eskertu eta zoriondu lehenik, Mundakako Udala batetik, jardunaldi honi babesla eman izanagatik, eta Euskaltzaindiaren Literatura batzordea bestetik, berau eratu eta modu duinean bideratu izanagatik.

Mundakak herriko seme ohoragarria du Jose Manuel Etxeita. Bere bizian ospea, agintea eta itzala bereganatu zituen gizona. Filipinetan egokitu zen hainbat urtez, merkatalgo eta ekonomia ardua handiak bere gain zituela eta Manila hiriburuko alkate izateraino, oraindik Espainiaren kolonia zen azken aldion. Itsas zabaletan ibilia eta lurralde zabalak ezagutu zituan gizona. “Indiak irabazten ez dira errazak” dio kantu zaharrak, baina Etxeitaren bizialdiak on egin zuen kantu-esaera hori.

Baina guretzat, euskaldunontzat, eta mundakarrontzat, euskararen eta euskal literaturaren sorkuntzaren mesedetan egin zuen lanak du munta eta ardua, eta Euskaltzaindiarentzat, euskal hizkuntza-literaturen babesle eta sustatzaile den aldetik, are gehiago. Horregatik dugu omentzen eta goratzen gaur Jose Manuel Etxeita euskal idazlea.

Munduan barrena ibiltze luzeak eta noranahikoak egin bazituen ere, Euskal Herria eta euskara bihotzean zizelkatuak eraman zituen, eta azkenean eta azkenean ere zahartzaroko atsedean urteak horri eskaini zizkion. Etxetik zekien eta Mundakako herrian zein erbestean aberastu zuen euskara lantzen eta literaturaren ildoetan ereiten.

Denbora luzeegirik ez zuen izan euskaraz idazten ekiteko, baina eman zituen urteak benetan ekarkorrak izan ziren, batez ere euskal nobelagintzaren hastapenetan: eleberri bi idatzi ez ezik, argitara ere eman zituen. Neurri horretako liburu bat argitaratzea ez zen, aldi hartan, edozeinek erdietsi zezakeen helmuga, baina Etxeitak, bere eskuartekoak eta borondate irmoa bitarte, horretarako ahalmena izan zuen. Durangoko Florentino Elosu-ren inprimategian argia ikusi zuten *Josetxo* (1909) eta *Jaioterri maitia* (2010) eleberriek eta geroxeago *Au, ori ta bestia* (1913) neurtitz bildumak. *Euskal Esnalea* aldizkaria izan zuen beste zutoin nagusia, bana-banaka garantzen zituen idazlan laburrak argitaratzeko: narrazio laburrak, itzulpenak eta beste.

Etxeitak, itsas eta lurralde zabaletan luzaro ibili izanagatik, ez zuen sekula ahaztu bere *Jaioterri maitia*, eta etxera itzuli zen zahartzaroan, *Josetxo* Argentina eta

Montevideotik itzuli zen atzera Eladigaz ezkontzeko. Baina bihotzak dio: *Zoaz Euskal Herrira!*

Etxeita, euskararen eta euskal ele ederren aldeko lanean eredugarri dugu alde askotatik:

- Euskara, beste hizkuntza nagusien kideko ikusi nahi zuen, eta horren alde jokatu zuen.
- Bere jaioterria, Mundaka, eta inguru hurbila, Bermeo eta Demiku barne, literaturaren plazara jaso zituen. Bertako jendea, bertako gizartea, jendearen pentsamoldea, ohiturak, bizimodua islatu eta altxatu zituen.
- Erbestean, itsasoetan eta kanpo lurraldeetan bizi ziren euskaldunak bere literaturgintzan txertatu zituen, bere burua barru zela.
- Etxetik eta herritik ikasia zuen euskara lantzen eta aberasten ahalegin aparta egin zuen. Horretan Azkue eta beronen hiztegia lagun zituela, baina baita gure idazle klasiko eta hurbilagoen irakurketa ohartua eginez, Añibarro eta Mogel, besteak beste.
- Euskal eleberriari ekarri onuratsua egin zion, genero horren lantzaile goiztiarra izanik. Bizkaian Domingo Agirre zuela aurretiko hurrena.
- Mundakari eta Urdaibai osoari euskal hizkuntzaren aldeko harrotasuna bihurtzeko egin zuen ahalegina ere gogoangarria dugu.

Euskal hizkuntzaren eta literaturaren barrutia elizgizonen giropean sustatua zen aldi horretan, aparteko meritua du itsasgintza munduko idazle honen presentziak euskal letren munduan.

Euskaltzaindiaren ordezkari gisa, bakarrik esan, onuratsua gertatu dela Etxeitaren urtemuga aitzakia dela hemen egin den jardunaldia.

Eta Euskaltzaindiak, Iker Sailarekin batera, Jagon Saila ere ardurapekoa duenez, dei bat gaurko mundakar eta inguruetakoei. Euskara, idatzietan eta eskoletan den moduan, kalean eta etxeetan ere erabil dezagula. Euskararen transmisioari ardura berezia har diezaiogula, Etxeitak bere aldian egin zuen ahaleginaren bidetik. Turismoak eta jendearen bizimodu mugikorrek arriskutan jartzen dute hau gaur egun, batez ere XX. mendearen erdialdetik honuntz. Ez dakiola Mundakari gertatu, Bizkaiko edo Lapurdiko beste itsasaldeko hiri eta herri batzuei gertatu zaien galera lazgarria.

Adolfo Arejita